



## HAURREN, GURASOEN ETA IRAKASLEEN FESTA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko haurrak, gurasoak eta irakasleak bilduko dira gaur, Leitza, IX. Topaketan 7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-04-26**

VIURTEA 1.418 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**JUANMA LILLO** REALAREN ENTRENATZAILEA

## «Realaren zama nagusia presioa baino presa da; ulertzekoa da»

**TOLOSA** Apirilaren 2az geroztik Realaren entrenatzailea da; gaur, Malagaren aurkaigoera erdia izango du jokoa

**BERAZUBI** «Futbolarekin harremanetan jarri ninduen lehen lekua da, nire haurtzaroko ikonoa», dio 2



Antzerki emanaldia izan zen atzo egun osoan ikusgai Trianguloan, Interneti buruz. E. EZBIZA

## INTERNET ESKOLA ZABALIK AMARAUNEAN EDONORK NABIGATZEKO

**TOLOSA** Atzo ireki zituen ateak Internet Eskolak Triangulo plazan eta Kultur Etxean; gaur eta bihar ere irekita egongo da 4

## Emaitza onak eskualdeko igerilariek

**IGERIKETA** Infantil mailako Euskal Herriko Txapelketan 5 urrezko domina lortu zituzten 4

## Igor Sasiain Euskadiko junior txapeldun berria

**HALTEROFILIA** Euskadiko txapelketan aritu da Danena-Olaederra taldeko pultsularia 6



**AVIA**

Larramendi 28 • Tolosa • 943 67 48 28

E **Elkarrizketa****JUANMA LILLO** » Realaren entrenatzailea

**Kirola**» Gaur Malagan iguera erdia jokoan izango du entrenatzaile tolosarrak; onartu duen bezala «zoragarria» litzateke taldea hirugarren postuan dagoela oheratzea.

**INIGO ASENSIO**

Apirilaren 2a. Aspaldiko ametsa azkenik iritsi da. Agian ez espero unean; baina iritsi da. Mundu osoa zeharkatu ondoren, han eta hemen bere futbolaren pertzeptzio landu hori erakutsi ostean, Juan Manuel Lillo (Tolosa, 1965) etxean da, edo etxetik gertu behinik behin, Real lehen mailara itzultzeko helburuarekin. Beste bi alditan bere bihotzeko taldearen ardura hartuko zuela jakin ondoren, azken unean ukatu izan zaio aukera hori. Bigarren mailan, eta talde txuri urdina urterik delikatuenean murgilduta dagoenean, tolosarrari Realarekin historia egiteko parada egokitu zaio.

**Urteak igaro dituzu etxetik urrun, futbolak hara eta hona zaramatzanean, zein da jaioterriarekin mantentzen den harremana?**

Egia esateko nik hemen mantentzen dut nire familia, eta baita emaztearena ere. Gaztetako lagunak, eta oraindik ere lagunak direnak, nire anaia Justo ere hemen bizi da... horregatik betiko lotura duzu Tolosarekin. Egia da tarteka hemengo testuingurua, giroa, ez duzula buruan, baina jendearekin harremana beti mantentzen da. Maite zaituen jendea beti dago alboan, urruti izanda ere.

**Berazubi berezia al da Juanma Lillorentzat?**

Bai noski. Berazubi futbolarekin harremanetan jarri ninduen lehen lekua da. Handia. Nire haurtzaroko ikonoa izan da, baita Tolosa futbol taldea ere. Umetan futbolarekin joaten nintzen autobusean partidak ikustera. Zelai inguruan tertuliak egiten genituen. Bizitzako lagunetako batzuk ere bertan egin ditut, Odriozola esaterako. Ondoren, Demetrio Terradillos eta Amarotzen zelaia aukera bikaina eskaini zidaten, asko zor diet; naizena eta lortu dudana.

**Aukera ez dago beti norberaren esku, baina agian ez da Realera iristeko amestu zenuenue?**

Egia da presazko edozein une ez dela unerik onena. Baina gauzak horrela dira, egoera eman zena ez balitz agian aukera ez zen inoiz iritsiko. Gainera, ondo iritertzen bada une perfektua izangoda.

**Nola izan da guztia?**

Dena oso azkar gertatu zen. Ez zen aurretik aztertzeiko aukerarik izan. Egia esateko ez naiz gertatutakoaz oso jabe. Abaguneak zantzen zaitu. Igiera duzu buruan, helburua lortzea. Betiko zure Rea-

# «Presioa baino, presa da talde honen zama nagusia; ulertzekoa da»



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

» **SOSLAIA**

## Desadostasunean ados

**Juanma Lillo**

Realaren entrenatzailea

Gizon interesgarria da tolosarra. Jakituria eta hitza bere etsai bihurtu dira tarteka, baina agian, urrunago irakurtzen ikasi behar dugu. Azkarra izateagatik, edota hizkuntza jasoa erabiltzeagatik jipoitua izan da hainbat urtetan, zerutik infernura eta infernutik zerura eraman dutenen eskutik. Taldea igoko ote duen galdetzen du edonork. Auskalo, erantzuna. Futbola aztertu eta lantzen duen gizona da, eta kasualitatearen garretan ia ezer utziko ez duen entrenatzailea. Futbolaz mintzoan, baina, ezinbeste-

koa da zortea, tarteka bada ere, alde izatea. Hortik aurrerako guztia egingo duela zintur nago. Eta zortea izan dezan espero dut. Sansek jokaturiko lagunarteko partida batean bildu ginen Zubietan eta jokoari begirik kendu gabe erantzun zituen galdera guztiak, tarteka esan beharrekoa pentsatuz eta tarteka sentimenduak hitz egiten utziz. Berazubik gauza asko ekartzen dizkio gogora. Baita, zuzenean onartzen ez badu ere, Gipuzkoan hainbatetan ezarri zaizkion kritika gordinak. Gehienetan, askoren esku ez dagoen hizkuntza erabiltzeagatik. Topikoetatik hara-

tago doazen kontzeptuak agertzeagatik, bestetan. Hala eta guztiz ere atsegina da horrelako pertsonak entzutea. Taldearen jokotik haratago. Norberak onartzen duen moduan, «egoa bidean gaitzen» joan den gizona entzutea, aurrean bere bizitzako erronka duelarik. Sistemetan, jokalarietan, edota auskalo zein erabakitan ados ez egotea kontu bat da, baina garbi dago taldearen onuraren bila ari dela buru-belarri, lana berran egiten. Hori entrenamendu bat ikustera doan edonork nabari dezake. Askotan nahikoa izaten ez dela badakit, baina zortzi partida faltan, ez dugu jada beste aukerarik. Ezta beharrik ere, Malagan irabazteaz besterik. Lilloarekin nago, desadostasunean ados. **I. ASENSIO**

**Azken urteetan bizi izan dudanari begira bai esan dezaket egoa bidean erortzen joan zaidala.**

**Berazubi futbolarekin harremanetan jarri ninduen lekua da; handia da, haurtzaroko ikonoa**

laren perspektiba galtzen duzu, igoeran murgilduta zaudelako.

**Iritsitakoan Lillo desberdin bat aurkitu du jendeak. Bere hitzak neurtu eta mugatzen dituen entrenatzailea. Zure hitzen kritika- ren beldur zara oraindik?**

Nik banekien, hemen jendeak pertsona baino, pertsonaia aurkitu nahi zuela. Ni neu baino, nigandik sortu duten pertsonaia hori. Tarteka nor naizen jakiteko beharrik edo gogorik ere ez zuten, pertsonaia besterik ez zutelako bilatzen. Horregatik sinpletasunean erortzeko tentazioa izan dut, ergela edota inozoa naizela pentsa dezaten. Horrela jendea ez da nire hitz egiteko modua aztertzen ariko, taldearen jokoa baizik. Tarteka hitz itsusiak esan eta denak lasaia go daudela dirudi.

**Igoeraren beharrak presio gehiegi ezartzen du, horrek lana zailtzen al du?**

Presioa baino, presa da taldearen zama nagusia, jendeak lehenbailehen ikusi nahi du taldea igotzea postuetan eta horrek analisia mugatzen du neurri batean. Ulertzekoa da. Jendea ez zaio zalan gus-tatzen. Izugarritzko mina jasan dezakegu, baina ez ziurgabetasuna. Denei gertatzen zaie baina gu Real gara; hor dago aldea.

**Gaur galduz gero, emaitzen arabera gauzak asko oker daitezke...**

Egoera guztiak kontra jartzen badira, Sporting 4 edo 5 puntuko aldearekin jar liteke, egia da. Baina ez dut irabaztea ez den beste emaitzarik buruan. Oso partida zaila da, baina aldi berean motibazio ikaragarria emango liguke garaipenak, eta garbi dago lor dezakegula.

**Igoera lortzeko heroi bihurtuko zintuzke, agian hain kritikoak izan direnekin adiskidetu zaitzake?**

Hori gainontzekoen kontua da, ez nirea. Ez nau heroi izateak kezkatzen, eta gutxiago haserretu ez naizen haiekin adiskidetzek. Beti gertu egoa direnak poztu dira, horrek du garrantzia.

**Bere ibilbideko zein unetan sentitzen da Juanma Lillo?**

Ibilbidearen zein puntuan zauden jakiteko bidea amaitu behar da. Azken urteetan bizi izan dudanari begira bai esan dezaket egoa bidean erortzen joan zaidala. 26 urte daramatzat entrenatzen, eta horrek erakutsi dit futboleko ezer ez dela egia eta ezer ez gezurra. Fikziozko futbol gehiegi dago. Dena ohar-kabea gertatzen da. Dena da galkorra. Adjektiboek azken emaitzaren kutsua daramate beti.



## Herritarren babesa eskertuz

**IBARRA** ■ Uzturpe Ikastolak «azken egunetan herriko hezkuntz proiektuaren alde herritarrengandik jasotako babesa eskertu asmoz» txokolatada egin zuen atzo Ibarako plazan. Bestalde, Udal Haur Eskolari buruzko lan mahai bat antolatu dela azaldu dute Udale-

tik, non talde politiko bakoitzeko bozeramaileak, haurtzaindegi eta ikastolako gurasoen batzordeko ordezkariak, langileak, Ikastolako zuzendaria eta EAE-ren ordezkariak dauden deituak. Bilera, asteazkenean, hilaren 30ean, 17:30ean izango da Udaletxean. I.T.



## Mobilizazio Eguna eskualdean

**POLITIKA** ■ Mobilizazio Eguna deitu zuten atzo, nazio mailan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideen aurkako epaiketa dela eta. Hala hainbat ekintza burutu zituzten eskualdean; Tolosan, (irudian) Triangulo

plazan elkarretaratzea egin zuten. Asteasun ere elkarretaratzea egin zuten, eta Anoetan, elkarretaratzeaz gain, epaiketaren inguruko DVDa ikusi zuten, eta Neu eta Bazein taldeak izan ziren gaztetxean. I. GARCIA



## Antzezlanen bidez kontzientziazten

**TOLOSA** ■ Peter Robers mimoa izan berri da Laskorain ikastolan. Helburu bat du ekimen honek, gazteria kontzientziaztea alkoholaren kontsumoaren aurrean. Mimoak eginiko antzezlanekin, egoera batzuk irudi-

katzen ditu alkoholismoak sortzen dituen arazoekin, gazteek hori ulertu eta horreganako ikuspegi kritikoa izan dezaten. Hainbat ikastetxetan burutzen ari diren antzezlanen osaturiko zirkuitua da. HITZA



Zesta-Punta Elkartek antolaturiko Udzakeneko topaketen une bat. HITZA

## Gipuzkoako Zesta-Punta Txapelketa hasiko da bihar

**Tolosa** ■ Beotibarren izango dira bihar partidak, 11:00etatik aurrera; lau taldek hartuko dute parte herriarteko norgehiagokan.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Herriarteko Zesta-Punta Txapelketa hasiko da bihar Tolosako Beotibar pilotalekuan, eta bertan lehiatuko dira Tolosako Beotibar Zesta-Punta Elkartekoak. 11:00etan hasiko da txapelketa, eta hiru partida jokatuko dituzte.

Tolosak, beraz, izango du ordezkari txapelketa honetan, Beotibar Zesta-Punta Elkarteko hiru talderekin, guztiak tolosarrak. Kadete mailako taldea (Esnaola, Lopez, Sadaba, Telleria, Zaldua), junior mailakoa (Bildarratz, Izagurre, Telleria) eta hirugarrena senior mailakoa (Orrantia, Rezola, Trabazos).

Zesta-Punta Elkarteko kideek azaldu bezala, «txapelketa honetan herri batek parte hartzeko ezinbestekoa du hiru kategoria horietan pilotariak edukitzea eta, gainera herri horretan bertan bizi direnak izan behar dute». Baldintza

hori Tolosak betetzen du zesta-punta modalitatean. «Beotibar Zesta-Punta eskola urtetan egiten ari den lanaren froga da».

Tolosarekin batera, Gipuzkoako beste hiru herri lehiatuko dira elkarrekin, ekainaren erdialdera arte: Donostia, Mutriku eta Zumaiia.

### Finala, ekainaren 14an

Biharko lehenbiziko jardunaldian, mutrikuarrak izango dira tolosarren aurkariak. Hurrengo jardunaldia maiatzaren 11n izango da, eta kasu horretan Tolosa eta Donostia izango dira nor baino nor. Hirugarren jardunaldian (maiatzaren 18an) Zumaiaren aurka jokatuko du Tolosak. Laugarrenean (maiatzaren 25ean) Mutriku izango dute tolosarrek aurkari; bosgarrenean (ekainaren 1ean) Donostiaren aurka jokatuko dute; eta seigarrenean (ekainaren 8an) Tolosa eta Zumaiaren artekoa izango da. Finala ekainaren 14an izango da.

Bestalde, Tolosako Zesta-Punta taldeko Arkaitz Izagirrek gaur partida jokatu du Balda pilotalekuan, GRAVN txapelketaren baitan. Tolosarra Gipuzkoako taldean jokatzeko aukeratua izan da.



# Bost urrezko domina Tolosako igerilarientzat

**Igeriketa** » Infantilen Euskal Herriko Txapelketa jokatu zen igandean; bertan izan ziren Tolosaldeko igerilariak.

## ERREDAKZIOA

Duela egun gutxi infantil mailako igerilarien Euskal Herriko neguko txapelketa jokatu da. Bertan, Tolosaldea Igeriketa Taldeko 15 kirolarik hartu zuten parte. Denak ere ongi aritu ziren eta horietatik bostek urrezko dominak eskuratu zituzten. Beste seik, zilarrezkoak, eta brontzezko zazpi.

Nabarmentzekoa da ondorengo igerilariak egindako lana. Alde ba-



Denera Tolosaldea Igeriketa Taldeko 15 igerilariak hartu zuten parte. HITZA

tetik, Marta Alonso 200 metro bizkarrezkoan Euskal Herriko txapeladuna izan zen, bi minutu eta 32 segundoko denborarekin. 100 tximeleta estiloan berri, estatuko gutxiengo izatea lortu zuen. Gainera, Gipuzkoako errekorretik oso gertu geratu zen, minutu bat eta 10 segundo behar izan baitzituen.

Iosu Carrera ere oso ongi aritu zen. 200 metroko estiloan urrezko domina irabazi zuen eta estatuko gutxiengo denbora egitea ere lortu zuen. Jokin Otaegik ere erakustaldi polita eskaini zuen 400ekoan. Olaia Cuadrado berriz armailean zeudenengan harridura sortu zuen, egindako lanagatik. Hala Euskal Herriko txapeladun izan zen 200 estilokoan.

Nestor Etxart bular-igeriketa estiloan lehiatu zen, 200 metrokoan. Honek bi minutu eta 46 segundoko denbora egin zuen, brontzezko domina etxeratuz.

Manso ahizpak, hau da, Maria eta Ane ere oso ongi aritu ziren, marka onak lortuz. Hauxe gain banakako probetan parte hartu zuten eskualdeko igerilarien artean ere, aipatzekoak dira Ivan eta Elena Gabirondo, Endika Arandia, Irati Ibarbia, Iñaki Carrera, Davis Rodriguez, Iñaki Muñoa.

Erreleboetako proban ere aritu ziren Tolosaldea IKTKoak, eta hemen ere emaitza onak lortu zituzten. 4x100 metrotako proban mutilak bigarren geratu ziren, eta 4x50ekoan hirugarren.

## Zabal zabalik eta edonoren eskura, Internet Eskola

**Gizartea** » Gaur eta bihar ere zabalik egongo da; gazteak eta adinekoak prestatuko dituzte Interneti probetxua ateratzeko.

## ESTI EZEIZA

Atzo ireki zituen atek Internet Eskolak. Lehenengo bistariak gaztetxoak izan ziren. Hauek izan ziren Triangulo plazan eta Kultur Etxean kokatuta dauden ordenagailuak erabiltzen lehenak. Ekimen hau berria da, eta sarean sartzea ohituta ez dauden pertsona guztiei dago zuzenduta.

Internet Eskolan denbora pasatzeko hainbat aukera daude. Alde batetik, bideojoku berrienetan jolasteko aukera dago. Bestetik, nabigatzeko 70 ordenagailu daude



Triangulon ikusgai den antzerkiaren uneetako bat. ESTI EZEIZA

edonor joan eta ibili dadin. Prestakuntza gelan berri, monitore baten ezagutza ahal diren zerbitzu nagusietako batzuk azaltzen dizkie bertaraten direnei. Eskola haue-

tan parte hartu nahi dutenek lehenagotik hartu dezakete hitzordua Trianguloko karpan. Honez gain, plazaren erdian antzeki emanaldiak ere izango dira.

## «Honekin Internet herritarrengana gerturatu nahi dugu»

**TXOMIN ALKORTA** » Eusko Jaurlaritzaren KZguneak arduraduna

**Aisia** » Spri eta KZguneak antolatuta dute Internet Eskola; besteak beste, ikastaroak eta antzerkiak izango dira.

## ERREDAKZIOA

Atzotik biharrera arte Internet eskolara joateko aukera izango dute herritarrek. Hau Triangulo plazako karpan eta Kultur Etxean dago kokatuta. Ekimen hau Spri eta KZgunearen artean antolatuta dute. Bigarren honetako ordezkari da Eusko Jaurlaritzaren Txomin Alkorta.

**Zein da Internet Eskolaren helburua?**

Ekimen honekin Internet herritarrei gerturatu nahi diegu. Horretarako bi ataletan banatu dugu gure lana. Alde batetik, ikastetxeetara zuzendu gara, gaztetxoengan eragiteko, eta bestetik, adinekoengana.

**Zer da Internet Eskolan egiten dena?**

Urtean zehar hiru alditan edo, herritarrengana hurbiltzeko kalera ateratzen gara. Hemen, alde batetik, bost minutuko ikastaroak ematen ditugu Interneten zenbait erabilera azaltzeko. Horrez gain, ipini ditugun ordenagailuetan jendeak gure erroka jendea teknologia berrietara hurbiltzea da. Izan ere, oraindik jendea ez dago ohituta tramiteak etxetik egiten. Esaterako, erosketak, zergen ordainketak... Izan ere, 2010erako administrazioak bermatu beharra dauka, isunen ordainketak eta horrelakoak etxetik egin ahal izatea.

**Zer da Konekta Zaitzez programa?**



I. TERRADILLOS

Duela zazpi urte inguru sortu zen ekimen hau, eta hasierako helburua jendea Internet erabiltzera erakartzea zen. Batik bat adineko jendea. Baina oraindik zulo handi bat dago, jende asko ez baita fido teknologia berri hauekin. Egun ia 300 herritan daude KZguneak eta Internet dohainik erabiltzeko aukera eskaintzen dute. Horrez gain, ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

**Zulo bat dagoela diozu, baina gero eta gehiago dira Internet erabiltzen dutenak.**

Datu zehatzak ez dauzkatz, baina hori horrela da. Hala ere, orain, gure erroka jendea teknologia berrietara hurbiltzea da. Izan ere, oraindik jendea ez dago ohituta tramiteak etxetik egiten. Esaterako, erosketak, zergen ordainketak... Izan ere, 2010erako administrazioak bermatu beharra dauka, isunen ordainketak eta horrelakoak etxetik egin ahal izatea.

**PILOTA PARTIDUAK**  
aspepelota.com

**Apirilak 28 • Astelehena 16:30**

**Berasaluze IX - Apeztegia**  
**Ongay - Arizmendi**

**CAPELLAN - PASCUAL**  
**GONZALEZ - NALDA III**

**Del Rey - Urberuaga**  
**Olazabal - Arruti**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**

**ARAMBURU**

**Salgai (Alkiza).** Etxe handia lursailarekin. 4.000m<sup>2</sup>, guztiz eraberritua.

**Salgai (Tolosa).** Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pza)

**Salgai (Tolosa).** Etxebizitza garajearekin. Trinkele auzoan.

**Salgai (Tolosa).** Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igogailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailunik gabe. (193.000€ / 32.000.000 pza)

**Salgai (Tolosa).** Etxebizitza. Martin Jose Iraola kalean.

**Salgai (Ibarra).** Etxebizitza. San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000 pza)

**Salgai (Ibarra).** Lokala. Euskal Herria kalean.

**Salgai.** Garajeak. San Frantzisko eta Amaroizen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).

**Salgai edo alokatzeko (Lasarte).** Lokala, tximiniaekin, erdiguinean.

**Alokatzeko (Tolosa).** Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batkiler Zaldibian.

**Alokatzeko (Ibarra).** Pabiloi industrial, Leaburuko bidean.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**



## Gutunak

### Bidegoiango Dorronsoro eta Arzallusi erantzuna

Hasteko, elkarriketaren izenburuak begietara jo dit, ze udaletxe batek gardena izan behar duela eta kontuak garbi diotenean badirudi irregulartasunez edo iruzurrez funtzionatzat ari zen udaletxe batetaz hitz egiten ari direla, eta hori horrela esaterik ba al dago? Datuak azaldu beharko dituzte hori demostratzeko. Elkarriketan aipatzen dituen trapu zikinak azaltzea eskatzen diet, nik, alkate bezala erantzukizuna dutenetan, nik ez dut ezertxore gordetzeko.

Eta elkarriketari helduz 2007ko udal hauteskundeetako zerrenda osatzerakoan ez zela inor derrigortuta sartu eta taldea osatzeko arazorik ez zela izan, berak

dion bezala erantzun behar diot Dorronsorori. Bestalde, udal taldea sortu zenean nik aitortu nuen alkatek argia utzi egingo nuela; hala ere, martxoaren hasieran orain alkate kargua hartu duen Pello Arzallusi bilera batera deitu eta bertan berak nire dimisioa eskatu zidan, nireganako deskonfiantza zutela argudiatuz eta hauteskunde garaiak nire hitzei helduz; ni erabat harriturik gelditu nintzen eta hasiera batean trabarik ez nuen jarri. Ondorengo egunetan gaiari buelta bartzuk eman eta pentsatu nuen nireganako deskonfiantza nondik ote zetorren jakin beharko nuela nire dimisioa aurkeztu aurretik eta sei zinegotzi beste bilera batera deitu nintzen; hor berririo Pello Arzallusi deskonfiantzaz hitz egin zuen

azalpenik gabe dimisioaren eskararabahi gainean jarritz.

Egoera honen aurrean ostiralean hurrengo asterako egin behar genuen batzar deialdian nire dimisioa aurkeztuko nuela adierazi nien. Ostegun iluntzean udal taldeko kide batek deitu zidan nire dimisioa aurkeztu ez banuen zentsura mozioa aurkeztu behar zutela ostiralean eta sei zinegotzien sinadurak bildu behar zituztela eta nondik norakoak kontatu zizkidan. Informazio honen ostean, ez nuen dudarik egin idazkariari deitu eta hurrengo asterako batzar deialdia ez prestatzeko esateko.

Eta esan bezala, nire dimisiorik aurkeztu ez zela jakin zutenean ostiral eguerdirako zentsura mozioa aurkeztu zuten; alegia, bi kartekin jokatu zuten, nire dimisioa edo be-

raien zentsura mozioa eta guztia oraindik azaldu ez didaten arrazoirik gabe.

Gero diote baita herritarren iskanbilak nik probokatuak direla, nola esan dezakete hori? Nire erantzuna mozioaren aurrean isiltasuna izan baita. Bestela herritarrei galdetu besterik ez duzue.

Bai batek bai besteak aurreko legegaldia aipatzen dituzte, batak, arazo batzuk izan zirela azaltzen du; nire ustez beti daude gorabeherak, baina horretarako daude aurreko legegaldiko lau zinegotzi: ez ahal dute Pellok eta Jabierrek horietaz informaziorik jaso hauteskuntetarako zerrenda osatu genuenean, zer aldatu harrez gero? Eta Dorronsorori esan hitz egiteko benetako informazio duenean eta orain bere taldean dituen zinego-

tziek eman diotela, aurreko legegaldian inork ez zuela alkatearen dimisiorik eskatu, eta aipatzen dituen gauza susmagarri horiek udal baimen bat besterik ez zela, bi zinegotziek baimena emateko desadostasuna agertu zutela eta erantzunikunari ihes egiteko bere dimisioa auzketu zutela.

Gaur egun adina jakin izan banu, nik ere ez nuen udal baimen hori eman, gainera orain ere iskanbilan jarraitzen duen baimena da.

Bukatzeko, beraien esaten duten herri bilera informatzailearen zain nago, bertan zein arrazoi azaltzen dituzten jakiteko gosez. Bakarrik egia espero dut eta esaten dutena frogak aurrean dituztela esan dezatela.

**Juan Ugarte Toledo.** Bidegoiango alkate ohia.

### Gaur ez da V. Hitza Pilota Txapelketako norgehiagokarik izango

**Pilota** » Gaur asteokoak ziren maila gorenekoak, baina «ez da posible izan», antolatzaileen esanetan.

#### ERREDAKZIOA

V. Hitza Pilota Txapelketa aste honetan hasi da: asteartean kadeteen artekoak izan ziren Bidegoianen, eta atzo, berri, txikien kategoriak Albizturren, Adunan eta Alegian.

Seniorrek Tolosan zeuzkaten gaur lehenengo partidak, baina antolatzaileak argitu bezala, «ez da partidarik izango gaur, pilotarien arazoak direla medio». Datozen egunetan jokatuko dituzte, eta HITZAK emango du honen berri.

Bestela, gaur 18:00etan Berastegin txikiak jokatuko dituzte partidak.

### Gaur Beotibarren GRAVN

GRAVN txapelketako finalerdia gaur jokatuko dituzte 16:30etik aurrera. Bertan, Gipuzkoa eta Bizkaia lehiatuko dira 22 urte azpikotatzen eta nagusien mailan, bai bana-ka eta baita binaka ere.

### Astearte arratsaldean Amezketan egingo dute ohiko bilkura

#### ERREDAKZIOA

Amezketako ohiko bilkura ostegunean egin beharrean, datorren asteartean egingo dute. 20:30ean izango da, udaletxeko aretoan.

Bertan, besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dituzte: 2008ko apirilaren 3an eta 14an eginiko Ezohiko Bilkuren Akta Agiriaren onarpena; Larraitz-bidearen ondoko eremuko Hirigintza Egitasmo Proiektuaren onarpena eta Asfaltos Naturales Campezo S.A. enpresari Ugarteko bus geltokiko obrarako jarri zuen behin betiko bermearren abala itzultzea.

Xatur Zabalak Parrokiaren ize- nean eginiko obra lizentzi eskaera egingo du, «San Martingo ermitari harria agerian ateratzeko», alegia.

#### EAEren mozioa

EAE-ANVK aurkeztutako mozioa, 33/01 ere aztertuko dute. Hau Amnistia-aren Aldeko Mugimenduaren aurkako auziaren aurrean aurkeztuko dutena da.

Bukatzeko, batzordeetako bileren inguruko informazioa ezagutzera emango dute.

### Paper eskolako ikasleak Experimentaldia bisitatu dute egun hauetan

**Tolosa** » Kimikagintzako, laborategiko eta papergintzako zikloetako ikasleak joango dira.

#### ERREDAKZIOA

Donostiako Kutxaespazioan ospatzen ari den Experimentaldian, Tolosako Paper Eskolako Kimikagintza, Laborategi eta Papergintzako zikloetako ikasleek hartu zuten parte atzo, eta gaur ere han izango dira. Hala, ikasleek, irakasle- en laguntzaz, eta Emausen partaidetarekin zenbait experimentu egingo dituzte jendearen aurrean Miramongo Zientziaren Azoka honetan.

#### Egingo dituztenak

Behaketa eta azterketa ezberdinak egingo dituzte: gosalteko zereale- tan burdina eraustea, idazketa magikoa, uretako mikroorganismoa mikroskopioaren bitartez ikustea, paper zuntzak aztertzea, aurrez erabilitako embalai-kartoei- kin berriro erabilgarriak diren zenbait tresna egitea, eta abar.



### Anjel magoaren saioa frontoian

**AMEZKETA** » Anjel Magoak Kutxaren laguntzaz Amezketa-ko Zumadi eskola bisitatu zuen atzo. Frontoian hainbat truko egin zituen, jendea txundituta utziz. Herritarren, guraso nahiz haurren laguntza behar izan zuen behin baino gehiagotan majia egin ahal izateko: protagonista izan ziren momentu batzuetan Martxel, Beñat ala Jokin, esaterako. N. URBIZU

### Hilberriak

#### GAIZKA

Inguruko paretak guztixak igota eta zu sortu zintxuan Atxarten azken eskaladaz gozautu ez gabiz txarto, pentsatzen badou, oin zaozen tokitik, mezu bat bidaliko dozula: «Hamen kriston paretak daoz!».

**Jentilbaratz Eskalada Taldea eta Pagoeta Mendizale Elkartea**

**ZARAUTZ**  
2008ko apirilaren 26a

### JOXE ANTONIO OTEGI LOPETEGI

Herenegun hil zen istripua, 62 urte zituela

Berto hau zuretzat doa/ gure aitako maitea/ zenek beteko du orain/ zuk utzitako tartea/ Itxuraz gogorra baina/ irifar goxoz bete/ bazenun zirikatzen/ ta bertsotako artea/ lanerako bai dotea/ bizi osoko trotea/ mendizale porrokatu/ Ontto biltzaile trebea/ besarkada potolo bat/ maitasun betez ase/ zuk ereindako haziak/ jarraituko du bidea



**Zure hiru semeen partetik: Iñigo, Ion eta Andoni**  
Hileta elizkizuna Leaburuko San Pedro parrokiari izango da, arratsaldeko 18:00etan

**LEABURUN**  
2008ko apirilaren 26an

### JOXE ANTONIO OTEGI LOPETEGI

(Andoni Otegi euskal preso politikoaren aita)



Adiorik ez, ikusi arte



**Leaburu-Txaramako ezker abertzalea**

**LEABURUN**  
2008ko apirilaren 26an

### JOXE ANTONIO OTEGI LOPETEGI

Gure lankide umoretsua lan orduen pizgarria zure eskuak isildu dira baina ez zure irria.



**Antton, Joxe Miel eta Loidiko familia.**

**AMEZKETAN**  
2008ko apirilaren 26an



Jon Iraola umoregilea ikasleekin solasean. HITZA

## Euskaraz Biziren baitan, umorea nagusi

**Anoeta-Irura** » Galdera-erantzunen lehiaketa baten ondoren, Jon Iraola umoregilearen bisita izan dute bi ikastoletan.

### ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako ikastoletako Euskaraz Bizi taldeek galdera-erantzunen bitarteko lehiaketa burutu dute. Bi asteetan zehar LH 5. eta 6. mailako ikasleek eta DBH-ko ikasleek galdera batzuri erantzun behar izan die. Erantzun ego-kiaren truke pertsonari edo leku

ezagunen irudien zati bat jaso dute, azkenean irudia ezagutu eta izendatuaz.

Kanpaina hau burutzearen truke eta sari gisa, *Noaol*-ko aktore ezaguna den Jon Iraolaren bisita izan zuten Anoeta eta Irurako ikasleek. Iraolak bere umorea jarri zuen ekitaldian. Ikasleei dagokionez, Anoetako DBHko ikasleek *Wazemank*-eko esketx bat antzez-tu zuten Anoetako Ikastolan eta Anoeta eta Irurako ikastoletako LH 5. eta 6. mailako ikasleek dantza bat egin zuten *Wazemank* telebista saioko musikarekin Irurako ikastolan.



## Musika emanaldi «arrakastatsua»

**ZIZURKIL** » Pedro Mari Otaño eskolaren 25. urteurrenaren ekitaldien baitan, musika emanaldiak egin zituzten herenegun arratsaldean Atxulondo kultur etxean. Bertan, eskolako abesbatza berriaren estreinaldia egin zen. Eskolatik azaldu dutenez, «arrakastatsua izan zen eskolako abesbatza-aren estreinaldia eta musikari guztiak txalotuak izan ziren». HITZA

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iurgina.** Iurgin lanetarako pertsona behar dugu. Deitu 685 22 70 58 zenbakira.

### SALGAI

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.  
■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea dalgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

## 6 kilometroko igoera duen Loatzoko XVI. Krosa izango da bihar

**Amasa** » 10:30ean emango diote hasiera probari; bertako gazteek eta Uxo Toki elkarteak antolatzen dute.

### ERREDAKZIOA

Loatzoko XVI. Krosa izango da joan bihar. Amasako Loatzoko mendien igoera urteroko garai honetan antolatzen dute Amasako gazteek eta Uxo Toki elkarteak. 10:30ean emango zaio hasiera eta 70 korrikalari inguruk parte hartu ohi dute bertan.

Orain arteko errekorra Garin korrikalari zizurkildarrak dauka. 6 kilometroko igoera da eta nahiko aldapa gogorra dauka ibilbideak. Sariak banatu ondoren dortsala entregatu duten guztiek zozketa eder batean parte hartzen dute: arkumea, bi lagunentzat afaria, untxiak, oilaskoak, txuleta, kirol materiala, gazta... Lasterketa amaitu ondoren, korrikalariak bertako pilotalekuan durtatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek azaltzen dutenez, bihar «Loatzoko gainean giro aparta egongo da eta inguratzen den ororentzat hamaiketakoa izango da».



Fernando Etxegarai eta Nerea Amilibia, iazko irabazleak. I.A.



## Igor Sasiain, Euskadiko junior txapelduna

**Halterofilia** » Iruñeko Alkartasunaren izan berri da txapelketa; taldekakoan Gipuzkoa izan zen irabazle, eskualdeko jokalariekin.

### ERREDAKZIOA

Iruñeko Anaitasuna Elkartean halterofiliako Euskadiko Junior Txapelketa jokatu berri dute banakako eta taldeko mailetan. Taldekakoan lehenengoa Gipuzkoa izan zen. Bertako partaide guztiak Danena-Olaederra taldekoak izan ziren: Angel Martin, Jon Sasiain, Iker Hernandez, Mikel Quintana, Igor Sasiain eta Julen Intxausti. Bigarren Nafarroa izan zen, hirugarrena Bizkaia eta laugarrena Araba. Banakakoan, Igor Sasiain izan zen irabazlea.

Aipatzekoa da Jon Sasiainen itzulera txapelketetara, eskafoidean bi operazio izan ondoren eta bi urte eta erdi txapelketetan parte hartu gabe zegoela. Egin zituen sei altxaldiak onak izan ziren eta banakako saillapen orokorrean bosgarren postua lortu zuen Sasiainek. Danena-Olaederratik azaldu dutenez, «oraindik 18 urte dituen mutil honek poz handiak emango dizkigulakoan gaude eta zoriondu nahi dugu bere itzulerragatik».

Bestalde, gaur, Bartzelonan Galeuska hirukoa jokatu da, hau da, Galizia, Euskal Herria eta Katalunia arteko lehiaketa. Bertan Danena-Olaederrako pultsulari juniorrak diren Iker Hernandezek, Mikel Quintanak eta Igor Sasiainek parte hartuko dute. Entrenatzaile lanetan Ekaitz Kortajarenak debuta egingo du.

## L Laburrak

### ONA txartela egiteko aukera herriko KZgunean

**ADUNA** » ONA txartela, Osakidetza txartela eta herritar txartela elkartzan dituen, doan tramitatzeko aukera dago Adunako liburutegian dagoen KZgunean. Txartel horren bidez, hainbat gauza egin daitezke ordenagailutik bertatik, inora joan gabe: medikuaren-gana joateko txanda hartu, medikua aldatzeko eskatu, beste mediku baten iritzia eskatu, asistentzia-espedienteak eskatu, baje datuak eskatu, errenta-aitorpena egin, datu fiskalak kontsultatu, banku-eraketak... Ondorengo ordutegian eskuratu ahal izango da: maiatzaren 16ra arte, 16:00etatik 20:00etara eta maiatzaren 19tik 30era, 09:00etatik 13:00etara.

### Koadrilen Egunerako otorduentzako txartelak

**ANOETA** » Koadrilen Eguneako bazkaria eta afaria maiatzaren 17an egingo da frontoian. Izena emateko epea maiatzaren 12a arte egongo da zabalik. Horretarako Itzuli edo Buztina tabernetara joan beharra dago. Txartelak 7,5 euro baliotu ditu.

### Bailarako gazteak kirolarekin gozatzen

**AIZTONGO** » Aiztondoko gazteak Kaxkagor elkartearekin batera, aurreko asteburuan kirolaz gozatze-ko aukera izan zuten. Orain astebete, Adunako gazteak bizikletak hartuta Leitzararen pasa zuten eguna. Eta igandean, bailarako 60 bat gazte, Realaren partiduan izan ziren. «Gogoz animatu zituzten txuri-uridinak eta oso ondo pasa zuten», azaldu dute Kaxkagor elkartetik.

### Irteera antolatu du Jesusen Bihotzako Guraso Elkarteak

**VILLABONA** » Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Gurasoen Elkarteak biharko Andoaingo San Esteban auzora mendi irteera antolatu du. Nahi duen guraso eta ikasle orok parte har dezake irteera horretan eta ikastolaz kanpoko-entzate ere irekita dago parte-hartzea. 09:00etan irteerari dagoa Txermingo Ikastolatik, eta 13:30ak aldera itzuliko dira bertara. Norberaren ardura izango da jatekoa eta edatekoa eramatea.

### Amodiozko Gutunen Lehiaketan izen-ematea

**VILLABONA** » Villabonako Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du eta maiatzaren 5ean bukatzen da lanak aurkezteko epea. Lehiaketa honen berri izan nahi duenak Villabonako Euskara Zerbitzura jo ahaliko du: [euskara@villabona.net](mailto:euskara@villabona.net) helbidean 943 69 35 01 telefono zenbakian edo udaletxean.

# Haur, Guraso eta Irakasleen IX. Topaketan, ekitaldi ugari

**Leitza** » Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko haurrak, gurasoak eta irakasleak bilduko dira 11:00etatik aurrera.

## NAIARA GARZIA

Haur, Guraso eta Eskolen Arteko IX. Topaketak egingen dituzte gaur Leitza, 11:00etatik aurrera. Bertan, Leitza, Areso, Arano eta Goizueta haur eta gurasoak bilduko dira.

Topaketa Leitza, Goizueta eta Aresoko Guraso Elkarteak eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak antolatu dute eta laguntzaileak hauek izan dira: Leitza eskolako ikasle eta irakasleak, Leitza, Goizueta, Aresoko Eskolen Arteko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak antolatu dute eta laguntzaileak hauek izan dira: Leitza eskolako ikasle eta irakasleak, Goizueta eskolako ikasle eta irakasleak, Goizueta dantzariak, Aresoko dan-

tzari txikiak eta Aresoko eskolako ikasle eta irakasleak.

Hauen guztien laguntzarekin, Haur, Guraso eta Eskolen Arteko Topaketa antolatu dute bederatzigarren aldiz, eta bai goizez bai arratsaldez ekitaldiak antolatu dituzte.

## Helburua

Antolatzaileek azaldu dutenez, helburu nagusienetakoa «lau herritako haurrak, gurasoak eta irakasleak jai giroan elkartzea da». Honetaz gain, «ikasleek eta taldeek egindako ekintzak gurasoei eta herritarrei erakustea» dute helburu, baita kanpotik datozenak Leitza herria ezagutzea ere.

Horretarako 11:00etan plazan elkartuko dira, eta 12:30ak bitarte betiko jokoekin jolasean ariko dira. 12:30etik 13:00etara Aresoko eta Leitza dantzari txikiak erakustaldia egingen dute, eta 13:00etan Goizueta dantzariak Zagi Dantza dantzatuko dute herrian barrena.



Irakasleek eta gurasoek ere parte hartu arren, haurrak izanen dira protagonistak aurreko urteetan bezalaxe. I. T.

Ondoren, Leitza Eskola Erleta eskolan bazkalduko dute eta antolatzaileek azaldu dutenez norberak bere bokata eraman beharko du,

nahiz eta edaria eta kafea bertan emanen dituzten.

Festak arratsaldean jarraituko du, antolatu dituzten beste hainbat

ekitaldirekin: Asketa Txiki abesbatza, txokolate hartzea, kalejira erraldoiekin, ingurutxo... 18:00ak aldera amaituko da.

## » EGITARAUA

### Ordur ordu

■ 11:00-12:30. Betiko jokoak plazan.

■ 12:30-13:00. Aresoko eta Leitza dantzari txikiak plazan.

■ 13:00-13:30. Goizueta dantzariak Zagi Dantza dantzatuko dute herrian barrena.

■ 13:30-15:30. Bazkaria Leitza Eskola Erleta eskolan. Norberak berea eraman beharko du, edaria eta kafea bertan emanen dituzte.

■ 15:45-16:45. Eskoletako umeen ekitaldiak eta Asketa Txiki Abesbatza emanaldia. Ekitaldi

hauek ere Leitza Eskola Erleta eskolan bertan egingen dituzte.

■ 17:00-17:30. Txokolate hartzea eskolan.

■ 17:30-18:00. Kalejira Leitza Eskola Erleta eskolan eta ingurutxo Erleta eskolan.

# Final-zortzirenak, Amazabalen

## Urrezko Aizkora

Rekondo eta Arria V.a eta Lopez Azpilikueta eta Vicente lehiatuko dira elite kategorian, 19:30ean.

## N. GARZIA

Joan den asteburuan Leitza eta Lezaunen jokaturako kanporaketak eta gero, gaur 19:30ean Urrezko Aizkora Txapelketako final zortzirenak jokatu dituzte elite kategorian, Amazabal Pilotalekuan. Bertan, Rekondok Arria V.aren aurka jokatu du.

Bestalde, 18 urtetik beherako kategoriarri dagokionez, gaur *repeska* egingen dute Olanok, Saralegik eta Rodriguezek eta horien artean irabazle suertatzen dena izanen da laugarren sailkatua finalerdietarako, izan ere, Oihan Larretxea, Ander Erasun eta Julen Kañamarek jada sailkatuak baitaude.

## Rekondo eta Arria V.a

Bai Arria V.a, bai Rekondo joan den asteazkenetik ziren txapelketan, nahiz eta joan den larunbateko txapelketako bosgarren koxka izan. Halere, biak irabazle suertatu ziren, Arria V.ak Lasari irabazi on-



Rekondo eta Arria V.a elkarren aurka ariko dira. N. GARZIA

doren eta Rekondok, Atutxari, eta gaur aurrez aurre ariko dira. Rekondok gogoratu duen bezala, ordea, ez da lehenengo aldia. «Lehenengo urtean ere elkarren aurka aritu ginen eta galdu egin nuen.

Aurten ere bere lana ongi egiten badu lehenengo lauetan sailkatuko dela iruditzen zait». Arria V.aren ustez, Rekondo «mutil indartsua da», eta gaurko norgehiagoka «gogorra» izanen da.

# Aurrerako pilotariak bost txapelketatan

**Pilota** » Bost txapelketatan hartuko dute parte Aurrerako pilota eskolako pilotariak asteburu honetan, etxean eta etxetik kanpo.

## N. GARZIA


Aurrerako pilotariak asteburu bezala buru-belarri dabilta han eta hemen hainbat txapelketa jokatuz: Nafar Jokoak, Zaramagako txapelketa, Lizarrako Txapelketa, GRAVN Txapelketa eta Teledonosti Lau t'erdiko txapelketa,

hauek dira asteburu honetan jokatuko dituztenak.

Nafar Jokoak gaurgoizean jokatuko dituzte, Amazabalen bertan, eta orotara 8 partida jokatu dituzte. Gainera, Nafar Jokoen barruan, beste hiru partida kanpoan izanen dituzte: Burlatan, Iruñean eta Zubirín.

Lizarrako Txapelketa ere gaur izanen da (bertan Aurrerako 2 bikotek jokatuko dute), baita GRAVN Txapelketa ere.

Zaramagako Txapelketa eta Teledonosti Lau t'erdiko txapelketa dira Aurrerako pilotariak.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzalea:** 687 410 118. leitzalea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alkiza.** Ukenduak egiten ikasteko ikastaroa (intsusa, kalendula, berbera, eta abar) antolatuta dute maiatzarako, astelehenetan edo asteazkenetan Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean (943 693930).

■ **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskun gozmerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).

■ **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobus antolatuta du. Izena Udako bulegoetan eman behar da. 6 euro balio du.

■ **Tolosa.** Internet Eskola Triangeluan eta Kultur Etxean, ostiralean 9:30etik 13:00etara eta 15:00etik 20:00etara, larunbatean 10:00etik 14:00etara eta 15:00etik 20:00etara eta igandean 10:00etik 14:00etara: 70 ordenagailu, monitore lebidunak.

■ **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter II. Informatika zaleen arteko bilkura Usabal kirodegian.

■ **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kultur etxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, parte-hartu@baketik.org).

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatuta du Atapuercara eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro bazkide ez direnek) ordaindu beharko dute.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsionista elkarteak Saloura irteera antolatuta du ekainaren 1etik 15era pentsio osoan. Izen-ematea, elkartean 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).

■ **Tolosa.** Hilaren 28, 29 eta 30ean 10:00etik 14:30era ziklo-motoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858).

■ **Tolosaldea.** Kilometroak-08ren barruan, I. Rallysprint Nañarri Alegiatik Amezketa, Orendain eta Abaltzisketa pasatuz, 15:30etik aurrera.

### Kirola

■ **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatuta du maiatzaren 4rako, 7:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, basurde@komunikazioa.org helbidean edo irteeran. Sei ordu t, erditik 8 ordua irauten du.

■ **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

■ **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

### Zinema

■ **Villabona.** Helduentzako *No es país para viejos* filma emango dute

Gurean, gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi, 21:30ean. Haurrentzako, *Irabazle eta galtzaile* filma bihar 17:00etan.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** *Antigona* Vaiven taldearen antzerki saioa Leidor aretoan 20:30ean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Miren Gonzalez Goikoe txea margolari tolosarraren *Zabonrrontziak* erakusketara Leidor aretoa, Naturaldia jardunaldien barruan.

Maiatzaren 18ra arte izango da ikusgai.

■ **Tolosa.** Encarna Mejia margolari alegiarren olio-pinturak ikusgai Itae taberan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Maria Dolores eta Joxe Angel.** Gaur urrezko ezteiak. Zuen 7 seme-alaba, sui-errain eta biloba guztien partetik, muxu handi bana eta bihar arte.



### Urte askoan!

**Oier.** Gaur 5 urte. Zorionak! Ondo pasa eta gol asko sartu! Muxu!



### Urte askoan!

**Joseba Lopetegui (Auzo Txikia).** Gaur 6 urte. Zorionak maitia! Oso ondo pasa zure urtebetetzean.

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**zeu**  
ileapaindegia  
ileapaindegi berritua  
har ezazu zure txanda  
**943 671 427**  
santa klara 8. Tolosa

txokoa

antzezlanerako  
**2 sarrera pare** zozketan


**Antigona**

Vaiven ekoiztetxeak

### Irabazleak:

- Agustin Agote (Tolosa)
- Milagros Iturrioz (Irura)

Larunbata, apirilak 26  
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue